

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak edozein negozio-ereduren oinarria dira, eta WasteHero bezalako produktu batek bere arrakasta bezeroen identifikazio eta segmentazio egokiaren menpe du. WasteHero hondakinen kudeaketa adimendun eta jasangarria errazteko sortu den sistema berritzailea da, eta bere xede-bezeroa argi eta garbi ingurumenarekiko kezka duten pertsonak, erakundeak eta komunitateak dira. Produktuak edukiontzi adimendunak erabiltzen ditu, sentsore eta ikusmen artifizialari esker hondakinak automatikoki ezagutzeko eta sailkatzeko gai direnak. Horrela, birziklapena erraztu ez ezik, prozesua dibertigarri eta motibagarria ere bihurtzen du erabiltzailearentzat.

WasteHero-ren bezero nagusiak hainbat ezaugarri komun dituzten taldeetan banatzen dira. Batetik, ingurumenarekiko ardura duten herritarrak daude, birziklapen ohiturak hobetzeko interesa duten pertsonak. Hauek teknologia berrietara ohituta egon ohi dira, aplikazio digitalen bidez beren ingurumen-inpaktua kontrolatzea gustuko dute eta ohitura jasangarriak hartzea baloratzen dute. Ez dira soilik adin-tarte jakin batekoak, baina gehienetan gazte eta heldu aktiboak izaten dira, ingurumen-hezkuntza, ekonomia zirkularra edo hiri jasangarriak bezalako gaietan sentsibilizatuak.

Bestetik, ikastetxeak, unibertsitateak eta ingurumen-hezkuntza lantzen duten erakundeak ere bezero-segmentu garrantzitsuak dira. Hezkuntza-komunitate hauek birziklapenaren garrantzia transmititzeko moduak bilatzen dituzte, eta WasteHero bezalako sistema gamifikatuak baliagarriak zaizkie ikasleen motibazioa eta parte-hartzea handitzeko. Edukiontzi adimendunak eta haien aplikazioa ingurumen-ohiturei buruz ikasteko tresna praktiko eta eraginkorra dira, eta, gainera, ikastetxeen arteko lehiaketek ikasleengan lehia osasuntsu eta dinamikoa sustatzen dute.

Hirugarren segmentu gisa, udalak eta hiri adimendunen garapenean lanean ari diren erakunde publikoak daude. WasteHero IoT teknologiaren bidez konektatzen da udal-sistemekin, eta edukiontzien betetze-maila, egoera eta beharrei buruzko datuak denbora errealean bidaltzen ditu. Udalek hondakinen bilketa-plangintza optimizatzeko aukera dute, ibilbideak hobetu eta kostuak eta emisioak murriztuz. Horrek hiri efizienteagoak eta jasangarriagoak sortzea ahalbidetzen du, eta WasteHero udal-zerbitzuen aliatu teknologiko bihurtzen da.

Azkenik, auzo-elkarteak, komunitateak eta ingurumen-sentsibilizazioa areagotu nahi duten kolektiboak ere badaude. Hauek WasteHero-ren gaitasun komunitarioa aprobetxatzen dute: puntu-sistemak, sariak eta erronkak erabilita, herritarren parte-hartzea eta birziklapenean konpromisoa handitu ahal dira. Lehiaketek eta gamifikazioak komunitateen arteko lankidetzak eta kontzientzia ekologikoa indartzen dute.

Segmentazioaren ikuspegitik, WasteHero ez da merkatu masibo batera zuzentzen, baizik eta merkatu segmentatu